

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hondakinen kudeaketa errazten duen mugikorretarako aplikazio bat abian da jadanik

Android gailuetarako fase pilotuaren ondoren, Iphone-ra zabaldu da orain eta, hala, gaur egun erabilitako telefono mugikorren % 95 hartzen da

Jueves, 29 de octubre de 2015

Hondakinen birziklatzea errazten duen [mugikorretarako aplikazio bat \(app\)](#) abian da jadanik. Android gailuetarako fase pilotu baten ondoren, Iphone-ra ere zabaldu da, eta, beraz, gaur egun erabilitako telefono mugikorren % 95 hartzen du.

Horrenbestez, ReciclApp-BirzikiApp aplikazioak zalantzak argitzen, hondakinak uzten errazten eta mankomunitate nahiz herritarren arteko komunikatzeko bideak zabaltzen ditu.



Kanpainaren irudia.

Nafarroako Gobernuak [GANASA](#) (Gestión Ambiental de Navarra, S.A.) sozietate publikoaren bidez sustatutako aplikazioarekin, Nafarroako gizarteak oraindik zalantza batzuk dituen alderdi zehatz batzuk azpimarratu nahi ditu, biztanleen Ohiturak eta Jokabideen Azterketako datuen arabera ([Ecoembes](#)ek urtero egiten du). Hala, hondakin bakoitza zer edukiontzitan utzi behar den argitzen saiatzen da, berariazko ekipamenduak aurkitzen uzten du, puntu garbiak adibidez, olio, pila edo arropa uzteko edukiontzia, eta mankomunitateak eskainitako beste zenbait zerbitzu; herritarrak mankomunitatearekin ere harremanetan jartzen uzten du sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko. Gainera, hondakinak non lagatzen diren jakinarazten du, ikus-entzunezkoen bidez hondakinen birziklatze-prozesua erakutsiz.

Tresna hori egin da, [Nafarroako Gobernuak](#) Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratuekin, [Ecoembes](#)ekin, [Ecovidriorekin](#) eta gailu elektriko nahiz elektronikoaren hondakinak kudeatzeko sistema integratuen erakunde kudeatzaileekin egindako hitzarmenen esparruan: [Ambilamp](#), [Ecoasimelec](#), [Ecofimatica](#), [Ecolec](#), [Ecolum](#), [ECORAAE](#), [Ecotic](#), [ERP-Europako Birziklatze Platafoma](#) eta [Traqamovil](#), [Nafarroako Ingurumen Kudeaketa](#)ren bidez (GAN) garatzen dena, eta Nafarroako hondakinen mankomunitateen

lankidetzeta duena: Araxes, Bidausi, Bortziriak-Cinco Villas, Iruñerria, Zangozako eskualdea, Eska – Salazar, Irati, Mairaga, Malerreka, Mendialdea, Montejurra, Erribera Garaia, Erribera, Sakana, Izarbeibar eta Baztango Udala.

Nafarroak Espainiako batez bestekoa 10 puntutan gainditzen du

2014ko azken datuen arabera, Nafarroako herritarrek beira-ontzien hondakinetan 15.000 tona baino gehiago birziklatu zuten iglu edukiontziazen bidez, hau da, 93 ontzi biztanleko, batez beste.

Nafarroak Espainiako batez bestekoa ia 10 puntutan gainditu zuen, biztanleko 24,2 kilo birziklatuz beira-ontzietan; hala, adierazle horretan, hirugarren autonomia erkidegoa izan zen, Balearrak eta EAEn atzetik bakarrik.

Ontzi arinetan (plastikozko ontziak, latak eta brik-ak), 2014an, herritar bakoitzak batez beste 19,4 kilo utzi zuen edukiontzi horian, eta 34,2 kilo kartoi eta paper edukiontzi urdinean. Edukiontzi horian gaizki lagatako hondakinen portzentajea % 19,5 izan zen, aurreko urtean baino ia 3 puntu gutxiago, eta Espainiako batez bestekoa baino 10 puntu gutxiago. Datu horiek Nafarroa Espainiaren buru jartzen dute ontzi arin, paper eta kartoiaren birziklapenean.

Bestalde, gailu elektriko eta elektronikoen hondakinen bilketan, 2013an igo egin zen 2012arekin alderatuz: 3,82 kilo biztanleko eta urteko; Espainiako batez bestekoa, berriz, 3,20 kilo da biztanleko eta urteko. Maila batzuetan (informatika eta telekomunikazioetako ekipamenduak, argia egiteko gailuak eta kontsumoko elektronikoak, irratiak, telebistak eta bideokamerak, adibidez) bilketa-helburuak bete baziren ere, oro har ez zen bete biztanleko eta urteko 4 kiloko lege-helburua.